

## Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

**Aralar legebiltzar-taldeko bozeramaile, Aintzane Ezenarro Egurbidek**, indarrean den Erregelamenduaren babesean, gobernuak lege-egutegia aurkezteari buruz, hurrengo legez besteko proposamena aurkezten du:

### **ZIOA:**

Oposizioaren eskarien aurrean, Jaurlaritzako bozeramaile Idoia Mendiak uztailean iragarri zuen urriaren 15era bitarteko epea izango zutela sailburuek sail bakoitzaren lege-egutegia gobernuari aurkezteko, gero gobernu kontseiluan onar zezan. Orduan, jarritako epea luzeegia zela pentsatu arren, itxaron egin dugu. Epea gainera etorri ondoren, hots, urriaren 20a, aldiz, Mendia andereak adierazi du “pare bat astean” izango dela prest egutegi hori. Erabat atzeraezina da, sei hilabeteko jarduna eta gero, gobernuak lege-egutegia Legebiltzarrari eta gizarteari aurkeztea.

Hori dela eta, Aralar legebiltzar-taldeak hurrengo legez besteko proposamena aurkeztu du:

### **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA**

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari exijitzen dio berehalakoan ekar dezala ganbera honetara gobernuaren lege-egutegia.

### **URGENTZIAZKO TRAMITAZIOA:**

Onartezina deritzogu sei hilabete pasa eta gero gizarteak, eta Legebiltzar honek, ez ezagutzea gobernuak ze lege egitasmoa aurkezteko asmoa duen. Aspaldi behar zuen hemen gobernuaren lege-egutegiak. Hortik presazko tramitazio eskaria Legebiltzarreko Mahaiari.

**Gasteizen, 2009ko azaroaren 2an**

**Aintzane Ezenarro Egurbide**  
**Aralar Legebiltzar-taldeko bozeramailea**